## MUSIKA

BILBO

- **Elliot Murphy eta Olivier Durand.** Euskalduna jauregian, 20:30etan.
- ***El caballero de la rosa.*** Opera. Euskalduna Jauregiko Auditoriumean, 20:00etan.
- **XVIII. Mendeko Orkestra eta Gulbenkian abesbatza.** Arriaga antzokian, 20:00etan.

DONOSTIA

- **Yi-Jia Hou biolin jolea eta Cristina Mandeal.** Kursaal auditorioan, 20:00etan.
- **Vendetta.** Loiolako kultur etxean, 19:00etan.

DURANGO

- **Kantu afaria.** Berbaroren txokoan, 21:00etan. Musikaz lagunduta.

GASTEIZ

- **Aura hirukotea: Francesca Seri (xirula), Ilario Gastadello (biola) eta Alessandra Trentin (harpa).** Vital Kutxa fundazioko kultur aretoan, 20:00etan.
- **Kontzertu didaktikoak: Lituus haize-metala taldea.** Principal Antzokian, eguerdiko 12:00etan.

LEITZA

- **Xuhat.** Dantzaldia, karrapen. 19:00etatik 21:30etara eta 23:30etatik 2:00etara. Inauteriak.

## ANTZERKIA

BILBO

- **Dox Insustanciales.** Mistyk kafe antzokian, 21:00etan.

GASTEIZ

- ***Variaciones enigmáticas.*** Jesus Puente eta Juan Gea aktoreen eskutik, Principal Antzokian, 20:30etan.

## ZINEMA-BIDEOA

BILBO

- ***Mexiko eta Kalifornia tontorrak.*** Diapositiba emanaldia, Jose Ignacio Garciaren eskutik. A. Lojendio kaleko areto nagusian, 19:30etan.
- ***Insomnio.*** Karmengo aretoan, 19:45etan. Chus Gutierrez filmaren zuzendaria bertan izango da. Emanaldi berezia.

OIARTZUN

- ***Urte bat txuri beltzean.*** Diapositiba emanaldia Eneko Pouren eskutik, Udaletxeko pleno aretoan, 20:30etan. Antolatzailea: Girizia Mendi Elkartea.

## HITZALDIA

BEASAIN

- ***Nafarroako Unibertsitateko ikasketak.*** Manuel Garcia Conderen eskutik, Institutuko areto nagusian, 18:00etan.

BILBO

- **Kartzela eta generoari buruzko mahai-ingurua.** Hikaateneoan, 19:30etan. Partaideak: Nekane San Migel eta Mari Jose Carreras.
- ***Lavas submarinas. Apertura del Cantábrico. Emersión del País Vasco.*** Luis Ignacio Vieraren eskutik, Artxibo Foralean, 19:00etan.
- ***Berdintasuna.*** Juan de Larrea aretoan, 19:30etan. Partaideak: Andres de Francisco eta Luis Enrique Alonso irakasleak.

DONOSTIA

- **Emakume Idazleen XII. Topaketa.** Udal Liburutegian, gaur eta bihar. 17:30etan topaketaren hasiera ekitaldia izango da; 18:00etan Teolinda Gersao idazle portugaldarraren hitzaldia; eta 19:30etan Ying Chenek emango du hitzaldia.

ERRENTERIA

- ***Osasuna eta musika.*** Txinto Sanchezen eskutik, Reina aretoan, 20:00etan. Osasun Energetikoaren III. Astea.

GETARIA

- ***Situación actual de los Sin Tierra.*** Alberto Martinezen eskutik, Udal Areto Nagusian, 20:00etan.

SORALUZE

- **Energiaren inguruko eztabaida.** Baltegietako lokalean, 19:30etan. Partaideak: Jabier Marques, Carlos Garrido eta Ion Ugarte. Soraluzeko Mendi Taldeak antolatutako Ingurugiro Astearen barne.

## BESTELAKOAK

**'Euskal Lizunkeriaren antologia' • Liburuaren pasarte batzuen irakurketa • Eibarko Portalean, 19:30etan**

# Juan Martin Elexpuru

• IDAZLEA ETA FILOLOGOA •

*«Erotismoa eta jana dira gizakiaren interes handienak»*



EDURNE KOCH

**Juan Martin Elexpuru bergararra, *Euskal lizunkeriaren antologia* liburua eskuetan duela.**

EIBARKO UDALAK zenbait ekitaldi antolatu ditu, *Takian Potian 2.000* izenburuarenpean. Durangon Juan Martin Elexpuruk *Euskal lizunkeriaren antologia* liburua aurkeztu zuen, eta gaur arratsean antologia horretaz arituko da, eta zenbait pasarte irakurriko ditu. Ondoren, Mikel Markezek *kantu erotikoak* abestuko ditu.

■ **Zer moduzko erantzuna izan du *Euskal lizunkeriaren antologiak?***

Ona. Durangon poliki saldu zen. Eta irakurri duen jendeak gustura hartu duela esan du. Antologiak beti atzetik, aurretik, erditik edo edonondik har daitezkeen liburuak dira. Nik uste dut atsegina dela, denetarik duelako, genero guztiak ditu.

■ **Genero horien artean xikitoak azaltzen dira. Zer dira xikitoak?**

Xikitoak Zuberoako koplak dira, artzainek elkarri kantatzen dizkiotenak. Zirika bertsoak dira eta era guztietako gaiak azaltzen dira: marroiak, lizunak... Garai batean ez ziren jasotzen, baina badute beren balioa.

■ **Euskal Herrian erotismoarekiko interesik badagoela uste duzu?**

Euskaldunak horretan ez gara ezberdinak besteen aldean. Erotismoa da gizakiak duen interes handienetako bat, janarekin batera doa. Literatura erotikoa, berriz, berandu xamar hasi da Euskal Herrian. Baina uste baino erotismo gehiago dago liburu zaharretan ere.

■ **Bildutako testuen artean, zein gustatu zaizu gehien?**

Azkeneko urteetan irakurri ditudanen artean, bada Doroteo Iturriren ipuin bat, oso polita: *Marika euskaldun baten memoriak.*

**Urtzi Urkizu**
DONOSTIA

## BESTELAKOAK

BILBO

- ***Indalecio Prieto, textos escogidos.*** Liburuaren aurkezpena, Bidebarrieta kulturgunean, 20:00etan. Juan Olabarriak eta Ricardo Mirallesek parte hartuko dute.

GASTEIZ

- ***Jools and Mascha.*** Ipuin kontaketa ingelesez. Kultur etxean, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

ANDOAIN

- ***Mendi.*** Antxon Mendizabal Sanzen lanak. Ayerbe arte galerian, urtarrilaren 28a arte.

AZKOITIA

- ***Sahara, askatasunaren basamortua.*** Argazki erakusketa, Etxe Beltz erakusketa aretoan, otsailaren 6a arte.

BALMASEDA

- ***Trenbidea Balmasedako historian.*** Santa Clara elizan, apirilaren 3a arte.

BARAKALDO

- **Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko ikasleen erakusketa.** Barakaldoko erakusketa aretoan, urtarrilaren 28a arte.

BASAURI

- ***Sobre barro, sobre papel.*** Amaia Perez Tarrioren grabatu kalkografikoak eta eskulturak. Arizko Torrean, urtarrilaren 29a arte.
- **Monica Ortuzarren eskulturak.** Arizko Torrean, urtarrilaren 31a arte.

BEASAIN

- **Jose Martin Mendiaren pirograbatuak.** Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.
- **VIII. Pintura Lehiaketako lanak.** Aterpe tabernan, otsailaren 4a arte.

BERMEO

- ***Bizkaiko itsas azpiko landaretza eta fauna.*** Arrantzaleen mueseoko erakustokian, urtarrilaren 31 arte.
- **Ongintza izaerako erakusketa.** Miklos Sandorren oleoak. Maitasun elkartean, urtarrilaren 30a arte.

BILBO

- **Jose Ramon Amondarainen pinturak.** Windsor kulturgintzan, otsailaren 26a arte.
- ***Lokomozioa jostailuetan.*** Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoan, urtarrilaren 30a arte.
- ***Tretiakov galeriako XIX. Mendeko pintura errusiarra.*** BBV erakusketa aretoan, otsailaren 10a arte.
- ***Euskal Herria eta dinosaurioak.*** Artxibo Foralean, otsailaren 4a arte.
- **Agustin Garcia Benitoren arte lanak.** Amaste arte espazioan, otsailaren 18a arte.
- ***Ego-Eco.*** Juan M. Mororen lanak. Bilbao Arte galerian, otsailaren 14a arte.
- **Jean-Michel Othoniel.** Rekalde aretoan, otsailaren 20a arte.
- ***El bodegón español: de Zurbaran a Picasso.*** Arte Eder museoan, apirilaren 19a arte.
- **Eduardo Chillidaren lanak.** Colon XVI galerian.